2023/2024 Jarduera-programa

# Añanako Kuadrilla







## Araban elkarrekin egin dezagun

Arabako emakumeon berdintasunerako eta jabekuntzarako eskola



laia.araba.eus

Añanako Kuadrilla
Cuadrilla de Añana

araba álava

Laia

# LAIAeskola Añana

## Informazioa, kontaktua eta izen-emateak:

Añanako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua:

699 303 892

igualdad@cuadrilladeanana.eus

Foruen Plaza, 11. 01213 Ribabellosa, Araba

www.cuadrilladeanana.eus

**Inskripzioa daukaten jardueren izen-emate epea:** ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte.

**Haurtzaindegi eta garraio zerbitzua:** ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte.

**Gure buletin digitalean izena eman laia.araba.eus bidez**

@LaiaAraba @LaiaAraba @LaiaAraba laia.araba.eus

**#LAIAeskolaAñana**

Edukien elaborazioa: Añanako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
LAIAeskolako Idazkaritza teknikoa: Berdintasun Proiektuak, S. Coop www.berdintasun.org
Sormen zuzendaritza: Equiliqua & Victoria Omay / equiliqua.net
Maketazioa: La Debacle www.ladebacle.com
Inprimatzailea: Arabako Foru Aldundia
L.G.: LG G 443-2023

# Aurkibidea


| | |
|---|---|
| ATERA, parte hartu, ekin! | **5** |
| Eraso matxistarik gabeko jai ASKEAK | **6** |
| SexOka. Iruña Okako Udalaren sexualitateari buruzko aholkularitza zerbitzua | **7** |
| AÑANAKO KUADRILLAKO BERDINTASUNAREN ALDEKO VII. TOPAKETA | **8** |
| #AñanaFEMprende | **10** |
| Añanako Kuadrillako emakumeen Berdintasunerako Espazioa | **11** |
| “Ordu bioleta” irakurketa-klub feminista | **12** |
| **Ribabellosa-Lantaron** | **13** |
| · INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO VI. MARTXA | **13** |
| **LANTARON** | **15** |
| · Lantegia: “Sinestea sortzea da, zain daukazu bizitza” | **15** |
| **GESALTZA AÑANA** | **16** |
| · Zahartze aktibo eta ahalduntzaile lantegia emakume-taldeentzako | **16** |
| **LANTARON** | **17** |
| · Lantegia: “Denda gorria” | **17** |
| **POBES** | **18** |
| · FEMINIMPRO-Emakumeentzako inprobisazio antzerkia | **18** |
| **LANGRAIZ OKA** | **19** |
| · Berdintasunaren aldeko *Escape Room*-a | **19** |
| · Lantegia: Emakumeen arteko sareak ehuntzen | **20** |
| **RIBABELLOSA** | **21** |
| · Lantegia: Kosmetika natural kontzientea | **21** |
| **ZANBRANA** | **22** |
| · AFRIKALDIA, 2023ko Afrikar Zinemen Euskal Jaialdia | **22** |
| **LANGRAIZ OKA, KUARTANGO ETA ESPEJO** | **23** |
| · La belleza que pesa. Bizipenei buruzko hitzaldia eta *Las calvas existimos* liburuaren aurkezpena | **23** |
| **POBES** | **24** |
| · AFRIKALDIA, 2023ko Afrikar Zinemen Euskal Jaialdia | **24** |
| **ZANBRANA** | **25** |
| · Indarkeria matxistaren kontrako martxa morea. Portillatik Villaviejara | **25** |
| Lankidetza feminista mundua eraldatzeko eredu berri gisa | **26** |
| Arabako Landa Inguruneko Emakumeen Sarearen XXIV. urteroko Topaketa | **27** |
| Haur eta gazteen transexualitatea: ez da nire gorputza, zure begirada da | **28** |
| Emakumeak ikusarazten dituzten proiektuak | **29** |
| Berdintasunaren aldeko Añanako elkarteen lana | **31** |


AIARA
GORBEIALDEA
ARABAKO LAUTADA
VITORIA-GASTEIZ
AÑANA
TREBIÑU
ARABAKO MENDIALDEA
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXA


VALDEGOVÍA - GAUBEA
KUARTANGO
IRUÑA DE OCA - IRUÑA OKA
AÑANA
RIBERA ALTA - ERRIBERAGOITIA
LANTARÓN
ARMIÑÓN
RIBERA BAJA - ERRIBERABEITIA
BERANTEVILLA
ZAMBRANA

# ATERA, parte hartu, ekin!

Save the Children GKEak ohartarazi du adingabeak tratu txarren bidez erlazionatzen ari direla euren artean. Oso errealitate kezkagarria da, eta arazo sistemikoa da, sortzen ari garen jendartearen jatorria baita. Berdintasunean oinarritutako hezkuntza da aldaketarako giltzarria, haurtzarotik errespetua eta tratu onak sustatzen dituena. **Sexualitateari buruzko SexOka aholkularitza** zerbitzuaren bidez, jendartea eraldatzen lagundu nahi dugu. Bikotekideari, maitasunari, harreman erotikoei, nortasunei eta desioaren orientazioari buruzko zalantzekin, jakin-minarekin eta zailtasunekin lagunduko zaituztegu. Zerbitzu hau familiei, irakasleei, adingabeekin esku hartzen duten langileei, gazteei eta helduei zuzenduta dago; 14 urtetik gorako edozein pertsonari. Zerbitzu konfidentziala eta doakoa da.

Aurten Pobesen antolatu dugu **Berdintasunaren aldeko VII. Topaketa**, sakontzeko gogo bizia genuen gai batekin: **justizia eta indarkeria matxistari aurre egiteko erronkak**. Eztabaida antolatu dugu Arabako fiskalburuarekin, Clara Campoamor elkarteko abokatuarekin eta Goizargi Emakumeak indarkeria matxistaren biktimen eta bizirik atera diren emakumeen elkartearekin.

**Emakumeen parte hartzea eragin-guneetan, Añanako Kuadrillako emakume ekintzaileen AñanaFEMprende eta eskualdeko berdintasunerako espazioa.** Energiak mobilizatzea, motibazioa, parte hartzen ikastea, elkarrizketa, entzute aktiboa, iritzi guztiak garrantzitsuak diren espazio seguru eta erosoa, baldintza beretan sartzea... Hala definitzen dira Kuadrillako emakumeen parte-hartze espazioak.

LAIA Eskolaren Añanako 2023ko programazioan, irakurketa feministako klubaz, tailerrez, jarduerez eta hitzaldiez gain, **Indarkeria Matxistaren kontrako VI. Martxa** egingo dugu **Ribabellosa eta Lantaron artean,** Ana bizi izan zen bi herrietan. Urrian sei urte beteko dira gure bizilagunaren feminizidioa izan zenetik. Ez gara nekatuko martxa honen bidez indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria dela aldarrikatzeaz, desagerrarazi beharreko arazo soziala. Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei adierazi nahi diegu ez daudela bakarrik, eta udal -baliabideak eta -zerbitzuak dituztela eskuragarri indarkeria-egoeratik ateratzen laguntzeko.

Azkenik, **oso modu berezian ekarri nahi dugu gogora Javier Uriarte Jairo, Lantarongo alkate eta Añanako Kuadrillako presidentea**, duela gutxi zendu zena. Izan ere, herritarrekin, berdintasunarekin eta indarkeria matxistaren aurkako borrokarekin konpromisoa, inplikazioa eta gertutasuna zuen pertsona bat joan zaigu.

# ERASO MATXISTARIK GABEKO JAI ASKEAK

BELDUR BARIK




## POR UNAS FIESTAS LIBRES DE AGRESIONES MACHISTAS

**SATEVI: 900 84 01 11 / LARRIALDIAK: 112**

---

**GIZARTE LARRIALDIETARAKO UDAL ZERBITZUA: 945 13 44 44**

araba álava
foru aldundia diputación foral

Laia

Añanako Kuadrilla
Cuadrilla de Añana

Gorbeialdeko Kuadrilla
Cuadrilla de Gorbeialdea

Arabako Mendialdeko Kuadrilla
Cuadrilla Montaña Alavesa

CUADRILLA DE LAGUARDIA
RIOJA ALAVESA
GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO
KUADRILLA

ARABAKO KUADRILLA

# SexOka

## Iruña Okako Udalaren sexualitateari buruzko aholkularitza zerbitzua




14 urtetik gorako pertsonei eta, bereziki, gazteei zuzenduta, sexologiako profesionalek kudeatuko dute ekimena, gazteekin eta ikastetxeekin lan egiten esperientzia handia dutenek, gai garrantzitsuetan aholkularitza eskaintzeko; hala nola, sexu-identitatean, desioaren orientazioan, jokabide erotikoetan, kontrazepzioan, gorputzetan, bikotean…




**Udal zerbitzu konfidentziala eta doakoa**

Kontsulta: astelehenetan, 18:00 - 19:00

Telefono, whatsapp edo bideo-dei bidez

**690 091 922**

# AÑANAKO KUADRILLAKO BERDINTASUNAREN ALDEKO VII. TOPAKETA



Egilea: EL SALTO

## Justiziaren erronkak indarkeria matxistari aurre egiteko

Aurtengo Topaketan, justiziaren erronkak hainbat ikuspegitatik aztertzea da gure helburua. Biktimen beharrei heldu nahi diegu, eta prozesu judizialean esku hartzeko eredua aztertu. Galdera hau proposatzen dugu: Zer aldaketa egin beharko lirateke ikuspegi feministatik arreta integrala lortzeko?

## Programa

**11:30 Harrera instituzionala**

**11:45 Mahai-ingurua "Justiziaren erronkak indarkeria matxistari aurre egiteko"**

- **Carmen Cotelo López,** Arabako Probintzia Fiskaltzako fiskalburua
- **Jose Miguel Fernandez López de Uralde**, Clara Campoamor elkarteko abokatua
- **Goizargi Emakumeak**, indarkeria matxistaren biktimen eta bizirik atera diren emakumeen elkartea

**Moderatzailea: Rosabel Argote**, Euskal Kazetarien Elkartea eta Elkargoa

**12:45 Elkarrizketa eta hausnarketen partekatzea**

**13:15 Clownklusioak Trokolo antzerki konpainiaren eskutik eta hamaiketakoa**

| | |
|---|---|
| **Data eta ordua:** | **Urriak 28, 2023**<br>Larunbata, 11:30etik |
| **Tokia:** | Zentro Soziala, **Pobes** |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Ele bietan |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Añanako Kuadrilla<br>Erriberabeitiako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699 303 892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# #AñanaFEMprende

## Añanako Kuadrillako emakume ekintzaileak




**AñanaFEMPrende** sare organikoa da, Añanako Kuadrillako emakume ekintzaileak eraldatzen eta konektatzen dituena. Ahalduntze indibidual eta kolektiborako prozesua da, Berdintasun Zerbitzuak sustatzen duena eta Kuadrillako emakume ekintzaileei edo ekintzailetzan murgiltzeko gogoa dutenei zuzendua. **Batu taldera eta partekatu zure esperientzia!**

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Mentxu Ramilo Araujo**, politologoa, Politika eta Administrazio Zientzietan doktorea UPV/EHUn eta ekintzaile feminista |
| **Datak eta ordua:** | **Irailak 19, 2023**<br>Asteartea, 17:00-19:30<br>**Azaroko** bileraren data eta tokia iraileko saioan erabakiko dira |
| **Tokia:** | **Barrio** (Gaubea) |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzailea -<br>kolaboratzailea:** | Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta<br>inskripzioak:** | Whatsapp 699 303 892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Añanako Kuadrillako emakumeen Berdintasunerako Espazioa



Eskualdeko emakumeek parte hartzeko eta hitz egiteko espazioa da, emakumeen beharrak eta interesak berdintasun-politiken garapenean integratzen direla bermatzeko. Emakume guztiei irekita dagoen espazioa da, izan elkarteetakoak, talde informaletakoak ala maila indibidualean datozenak. **Zure zain gaude!**

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Emma Ortiz**, psikologoa eta coach-a |
| **Data eta ordua:** | **Irailak 21, 2023**<br>Osteguna, 17:00-19:00 |
| **Tokia:** | Zentro Soziokulturala, **Lantaron** |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Añanako Kuadrilla<br>Lantarongo Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699 303 892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# “Ordu bioleta” irakurketa-klub feminista



Irakurle-Klub Feminista topaketa, hausnarketa eta eztabaidarako espazio bat da, non adin, formakuntza, maila, lanbide, bizimodu... ezberdinetako emakumeak batzen garen feminismoaz hitz egiteko. Eleberriak, saiakerak, iritzi artikuluak, poesia... irakurriko ditugu eta liburuetako edukiari buruzko norberaren iritzia besteenarekin osatuko dugu. Esperientziak partekatzeko eta feminismoaz ikasteko baliagarria ere izango zaigu. Klub hau jabekuntzarako eta norbera aberasteko benetako espazioa da guretzat. Eta are gehiago, ondo baino hobeto pasatzen dugu.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Begoña Etayo**, genero-berdintasunean eta garapenerako lankidetzan aditua. María de Maeztu Forum Feministako kide da |
| **Datak eta ordua:** | **2023-2024**<br>**Hasiera 2023ko urriak 9**<br>Hileko bigarren astelehenean, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Liburutegia, **Berantevilla** |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Añanako Kuadrilla<br>Berantevillako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699 303 892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

RIBABELLOSA-LANTARON

# INDARKERIA MATXISTAREN KONTRAKO VI. MARTXA

***Ana, gogoan zaitugu***

## Ribabellosako Udaletxeko plazatik Lantarongo kiroldegira martxa



Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larria da, eta desparekotasuna du jatorri. Sei urte igaro dira gure auzokide Anaren feminizidiotik. Martxa honen bidez, indarkeria matxistari gaitzespenik irmoena adierazi nahi diogu, eta eraildako emakume guztiak gogoratu, baita haien seme-alabak, senideak eta hurbileko pertsonak ere, indarkeria horren zuzeneko biktimak baitira. Erakundeetatik adierazi nahi diegu indarkeria matxista (psikologikoa, fisikoa, ekonomikoa, sexuala, etab.) pairatzen duten emakumeei bakarrik ez daudela, eta eskuragarri dituztela indarkeria matxistatik irteten laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak.

| | |
|---|---|
| **Data eta ordua:** | **Azaroak 26, 2023**<br>Igandea<br>– 10:00 Txalapartari deia eta irteera udaletxeko plazatik, Ribabellosa<br>– Lantarongo kiroldegira iristea<br>– Manifestuaren irakurketa |
| **Tokia:** | Irteera Ribabellosako udaletxeko plazatik |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Ele bietan |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Erriberabeitiako Udala<br>Lantarongo Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699 303 892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

## ZER EGIN ZUK ZEUK EDO ZURE ALABAK, AHIZPAK, LAGUNAK, BIZILAGUNAK... GENERO INDARKERIA SUFRITZEN DUTELA DETEKTATZEN BADUZU?

1. **ARRISKUAN** bazaude, deitu **112** zenbakira! edo SOS DEIAK aplikazioarekin harremanetan jarri

2. Zalantzekin bazaude, blokeatuta, beldurtuta edo eta norbaitek entzutea nahi duzu. **INFORMATU** zaitez **Deitu 900 840 111 telefonora**

   SATEVI- telefono bidezko arreta zerbitzua
   24 Ordu-365 egun emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeei.
   Edozein indarkeria fisiko, psikologiko edo sexualen biktima diren pertsona guztientzat, baita haien hurbilekoentzat eta familiakoentzat ere.
   Dei hau doakoa da, arrastorik gabekoa, konfidentziala, anonimoa, 51 hizkuntzatan eta zeinu-hizkuntzan egiten dute arreta satevi.Svisual.org app-an.




3. **MINIK EDO LESIORIK EGIN BADIZUTE osasun-zentrora edo ospitalera** joan.

4. **ATENTZIOA** nahi baduzu... eskatu hitzordua zure **Udaleko Gizarte Zerbitzuetan.**

5. **LAGUNTZA** nahi baduzu... jarri harremanetan **Añanako Berdintasun Zerbitzuarekin**.
   igualdad@cuadrilladeanana.eus

   Tel.: 945 355 089

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

LANTARON

# Lantegia: “Sinestea sortzea da, zain daukazu bizitza”



Tailer honetan, sakon aztertuko dugu zer sinesmen mota dauden eta nola eragiten duten gure bizitzan. Jarrera existentzial positiboa sustatuko dugu, egin ditzakegun aldaketez ohartzeko. Gure autokontzeptua eta autoestimua berraztertuko ditugu. Horretarako, *coaching* tresna boteretsuak eta psikologia humanistan, mugimendu sistemikoetan eta *mindfulness*-ean oinarritutako teknikak izango dira metodologiaren oinarria.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Yolanda Pastor Tellechea**, coach pertsonala, terapeuta eta PNL masterra |
| **Datak eta ordua:** | **Irailak 7, 14, 21 eta 28, 2023**<br>Osteguna, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Lantarongo udaletxeko erabilera anitzeko aretoa |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Lantarongo Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699 303 892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Udaletxea: 945 332 024<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

GESALTZA AÑANA

# Zahartze aktibo eta ahalduntzaile lantegia emakume-taldeentzako



Tailer honetan, gorputzaren bidez, autoestimua, kudeaketa emozionala, norbere buruaren zaintza fisikoa/psikologikoa/emozionala eta zahartzeko modu ederrak landuko ditugu. Hobeto sentitzeko ariketa fisikoak egingo ditugu, estimulatzekoak eta erlaxatzekoak. Aztertu egingo dugu geure buruaren balioespena, baita emakumeok bizitzan zehar egindako zaintzaile-lanarena ere. Gogoeta egingo dugu erantzukidetasunaz, komunikazioaz eta tratu onez. Hori guztia, genero-ikuspegitik eta ahalduntzeko tresnarik onena taldea izanik. Espazio segurua sortuko dugu, konfiantzazkoa, elkar babesteko eta entzunak izateko, gure bizitzak partekatzeko eta trebetasun eta gaitasun emozionalak garatzeko. Ahizpatasun espazioa, alegia.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Ana Belén Hernández**, gizarte hezitzailea |
| **Datak eta ordua:** | **Irailak 12 eta 29; urriak 10 eta 24; azaroak 7 eta 21, 2023**<br>Asteartea, 17:00-18:00 |
| **Tokia:** | Añanako udaletxeko gela |
| **Norentzat:** | 60 urtetik gorako emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Añanako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699303892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Udaletxea: 945 351 067<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

LANTARON

# Lantegia: “Denda gorria”



Denda Gorria emakumeentzako gune bat da, kolore gorriko oihalekin apaintzen dena (kolore gorriak utero handi bat birsortzen eta sinbolizatzen laguntzen digu, bizitza eta zaintza sortzen dituen eta gizaki guztion sorlekua dena). Denda Gorrian zuretzako denbora eta espazioa har ditzakezu, atseden hartzeko, zure burua zaintzeko, taldean elkar zaintzeko, zure jakintzarekin eta boterearekin berriz konektatzeko, zure burua adierazteko, beste emakume batzuekin partekatzeko eta babesa aurkitzeko, gure sororitatea berrezartzeko.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Esther Molinero Martínez**, gizarte hezitzailea eta ekintzaile feminista |
| **Datak eta ordua:** | **Irailak 19, urriak 17 eta azaroak 21, 2023**<br>Asteartea, 10:30-12:30 |
| **Tokia:** | Lantarongo kultur gelako 4-5 aretoak |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Lantarongo Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699 303 892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Udaletxea: 945 332 024<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

POBES

# FEMINIMPRO- Emakumeentzako inprobisazio antzerkia




FEMinimpro antzerkiarekin jolasteko tailer bat da, babesezko, errespetuzko eta epairik gabeko giroan. Bertan, lagun artean sentituko gara gorputzaren, irudimenaren eta emozioen bidez esperimentatzeko. Zeharkatzen gaituen genero-arrakala pixkanaka aurkituz eta ateraz. Hemen eta orain gozatuz.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Torbellino Teruelo**, aktore eta ekintzaile feminista |
| **Datak eta ordua:** | **Irailak 22 eta 29, urriak 13 eta 27, 2023**<br>Ostirala, 19:15-21:15 |
| **Tokia:** | Zentro Soziala, Pobes |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Erriberabeitiako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699 303 892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

LANGRAIZ OKA

# Berdintasunaren aldeko *Escape Room*-a



Berdintasunaren aldeko *escape room* honetan iraganerako bidaia proposatzen dugu, XX. mende erdialdeko emakumeen eta gizonen bizitza irudikatzeko. Emakumeen eskubideen aldeko aktibista sutsu baten bizitzan oinarrituta dago, Clara Campoamorren jarraitzaile leiala izandakoa sufragio unibertsalaren aldeko borrokan. Testuak aurkituko ditugu, hala nola 1923ko maistren kontratua eta emazte ona izateko dekalogoa. Parte-hartzaileek etorkizunera —beren orainaldira— iristeko deszifratu behar dituzten kodeen oinarrian garai hartako girotzea egongo da. Bidaia honetan agerian geratzen da gaur arte lortutakoa, baina baita errealitate gordina eta aurrera egiteko geratzen zaiguna ere.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Tramankulu jolasak** |
| **Datak eta ordua:** | **Irailak 30, 2023**<br>Larunbata<br>Txandak: 10:30, 12:00, 13:30, 16:30, 18:00 eta 19:30<br>6-8 pertsonako taldeak |
| **Tokia:** | Gizarte Etxea, Iruña Oka |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat, adin guztietarako (12 urtetik beherakoek heldu batek lagunduta) |
| **Hizkuntza:** | Ele bietan |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Iruña Okako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699 303 892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

LANGRAIZ OKA

# Lantegia: Emakumeen arteko sareak ehuntzen

## Ahalduntze pertsonal eta kolektiborako prozesua



Kolektiboki ehuntzeko espazioa, herriko hainbat eremu eta adineko emakumeen artean konektatzeko eta sinergiak sortzeko. Ahalduntzeko espazio hau ikasteko, hausnartzeko eta norbere burua ezagutzeko tokia izango da, ehungintzaren arteari eta genero-pedagogiari buruzkoa.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | Artilea eta jostorratzak**: Mª Luz Elvira**, ehule aditua<br>Genero-hausnarketak: **Leticia de la Torre**, kazetaria, teknologia berrietan trebatzailea eta dinamizatzailea |
| **Datak eta ordua:** | **Urriak 4, 11, 18 eta 25 eta azaroak 8, 15, 22, eta 29, 2023**<br>Asteazkena, 18:00-19:30 |
| **Tokia:** | Zentro Soziokulturala, Iruña Oka |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Iruña Okako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699 303 892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Udaletxea: 945 361536<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

RIBABELLOSA

# Lantegia: Kosmetika natural kontzientea



Emakumeen artean hausnartzeko eta norbere burua zaintzeko topagunea da. Bertan, antzinako jakintzak partekatuko ditugu landareen, olioen eta algen propietate naturalei buruz, gure burua zaintzeko kosmetika naturala egiteko.

Tailer hau ikuspegi intersekzionaletik bideratzen da, udalerriko emakume anitzak konektatzeko eta haien arteko harremanak sustatzeko.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Oihana Santamaría**, *La jabonería de la Almendra* |
| **Datak eta ordua:** | **Urriak 20 eta 27; eta azaroak 3, 10 eta 17, 2023**<br>Ostirala, 18:00-20:00 |
| **Tokia:** | Gizarte Etxea, Ribabellosa |
| **Norentzat:** | Emakumeentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Erriberabeitiako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699 30 38 92<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Kiroldegia: 680 74 59 41<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

ZANBRANA

# AFRIKALDIA, 2023ko Afrikar Zinemen Euskal Jaialdia




## *FREDA*

Freda Haitiko hiriburuan bizi da, Port-au-Prince-n, langile auzo batean, amarekin, ahizparekin eta anaia gaztearekin. Familiaren bizibidea janari denda txiki bat da. Prekarietatearen eta eguneroko indarkeriaren gorakadaren aurrean, beren buruari galdetzen diote herrialdetik ihes egin behar duten ala ez. Bere zoriontasunari uko egiteko prest, bere herrialdearen etorkizunean sinestea erabakitzen du Fredak.

**Dinamizazioa:** **Afrikaldia**

**Data eta ordua:** **Azaroak 10, 2023**
Ostirala, 18:30

**Tokia:** Zentro Soziala, Zanbrana

**Norentzat:** 16 urtetik gorako herritarrentzat

**Hizkuntza:** Gaztelania

**Antolatzailea - kolaboratzailea:** Arabako Foru Aldundia
Añanako Kuadrilla
Zanbranako Udala

**Informazio + eta inskripzioak:** Whatsapp 699 303 892
igualdad@cuadrilladeanana.eus
Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez

LANGRAIZ OKA, KUARTANGO ETA ESPEJO

# *LA BELLEZA QUE PESA* Bizipenei buruzko hitzaldia eta *Las calvas existimos* liburuaren aurkezpena




Emakume burusoil baten eta XXI. mendeko sexismoaren benetako istorioa. Solasaldi honek bizipenei buruzko monologo formatua du. Dora Galvez protagonistak bizi duen indarkeria estetikoaren esperientzia eraldatzailea kontatuko digu, *Las calvas existimos* liburuan ere kontatu duena.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Dora Gálvez**, aktore soziala, berdintasun gaietan hezitzailea eta ekintzailea |
| **Datak eta ordua:** | **Azaroak 11, 2023**<br>Larunbata, 18:30 **Langraiz Oka**ko Gizarte Etxean<br>**Azaroak 18, 2023**<br>Larunbata, 18:30 **Kuartango**ko Antzokian<br>**Azaroak 25, 2023**<br>Larunbata, 18:30 **Espejo**ko Zentro Soziala |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Iruña Oka, Kuartango eta Gaubeako Udalak<br>Espejoko Administrazio Batzordea<br>Añanako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699 303 892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

POBES

# AFRIKALDIA, 2023ko Afrikar Zinemen Euskal Jaialdia




## *MLUNGU WAM / GOOD MADAM*

Thriller psikologiko ikaragarria da, Tsidi izeneko ama bakarrari buruzkoa. Tsidik ez du beste aukerarik, bere ama Mavisekin bizitzera joan behar du, harekin oso harreman hotza izan arren. Mavis neskamea da, bere 'madam' zuria zaintzea du obsesio, eta haren etxean bizi da. Baina Tsidi bere familia zaintzen saiatzen den bitartean, 'Madam'-en espektro maltzurra bazterrak nahasten hasiko da.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Afrikaldia** |
| **Datak eta ordua:** | **Azaroak 18, 2023**<br>Larunbata, 19:00 |
| **Tokia:** | Zentro Soziala, Pobes |
| **Norentzat:** | 16 urtetik gorako herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Arabako Foru Aldundia<br>Añanako Kuadrilla<br>Erriberabeitiako Udala |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699 303 892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

ZANBRANA

# Indarkeria matxistaren kontrako martxa morea. Portillatik Villaviejara



## Azaroak 25, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna

Ibilbidearen hainbat puntu sinbolismoz beteko ditugu eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak aldarrikatuko ditugu.

| | |
|---|---|
| **Hasierako topagunea:** | Portillako eliza |
| **Datak eta ordua:** | **Azaroak 25, 2023**<br>Larunbata, 10:00 |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzailea - kolaboratzailea:** | Zanbranako Udala<br>Añanako Kuadrilla<br>Zanbranako herritarrak |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Whatsapp 699 303 892<br>igualdad@cuadrilladeanana.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Lankidetza feminista mundua eraldatzeko eredu berri gisa




Euskadiko GGKE koordinakundeak antolaturiko topaketa honek ikuspegi feminista duen lankidetzarako bideari buruz hausnartzeko helburua du, esparru lokala eta globala aintzat hartuta. Bide horretan, jardunaldi honetan estatu mailan zer lan egiten ari den ezagutu, eta kontzeptu hori lanean nola txertatu aztertuko da, bai eta horrek Arabako lurraldean zer inplikazio eta erronka dituen ere. Bestalde, esperientziak partekatzen jarraitu ahal izateko, topaketak informalagoa izango den espazio bat irekiko du, mokadutxo bat hartzeko goiz erdian.

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Euskadiko GGKE koordinakundea** |
| **Programa:** | Hitzaldi nagusia: **Mercedes Ruiz-Giménez Aguilar**<br>Lan kolektiboa: **Clara Murguialday Martínez** |
| **Datak eta ordua:** | **Irailak 14, 2023**<br>Osteguna, 10:00-14:00 |
| **Tokia:** | Landederra kiroldegia, Burgelu |
| **Norentzat:** | GGKE eta herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Euskadiko GGKE koordinakundea<br>Arabako Foru Aldundia<br>Burgeluko Udala |
| **Informazio +:** | Haurtzaindegi eta autobus zerbitzua eskaera bidez irailaren 5a baino lehen |
| **Inskripzioak:** | **Izen emateak irailaren 7a baino lehen:**<br>https://forms.gle/bb3i2EYTC1QoMumUA<br>araba@ongdeuskadi.org / 945 28 07 45<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Arabako Landa Inguruneko Emakumeen Sarearen XXIV. urteroko Topaketa




Arabako landa-eremuko emakumeen intereseko gaien inguruan trukea, hausnarketa eta ikaskuntza bultzatzeko gunea da hau. Aurtengo leloa "*Belaunaldien arteko bizikidetza solidarioa ereiten, berdintasuna eta lidergoa jasotzen*" izango da.

**Programa:**

- 9:45 Harrera eta dokumentazioa ematea
- 10:00 Ongi etorri instituzionala
- 10:30 Hitzaldia *"Envejecimiento activo desde una perspectiva feminista y sororidad entre mujeres rurales de todas las edades".* **Mónica Ramos**, antropologoa eta gerontologa feminista
- 11:15 Hitzaldia *"Convivencia intercultural en clave intergeneracional: Retos y riesgos".* **Rubén Lasheras**, irakaslea eta ikertzailea
- 12:00 Deskantsua eta hamaiketakoa
- 12:45 Taldeko dinamika eta ondorioak
- 13:30 *"Mari Lluvia"* antzerkia, **Hamaika Konpainia**

| | |
|---|---|
| **Dinamizazioa:** | **Arabako Baserritar Inguruko Emakumeen Sarea** |
| **Datak eta ordua:** | **Irailak 16, 2023**<br>Larunbata, 9:30-14:00 |
| **Tokia:** | Kultur etxeko areto nagusia, Bastida |
| **Norentzat:** | Emakume baserritar eta Emakumeen elkarteentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Baserritar Inguruko Emakumeen Sarea<br>Bastidako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | Izen-ematea posta elektronikoaren bidez, izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa adieraziz:<br>red@mujeresruralesalaves.org / 626 38 98 65<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Haur eta gazteen transexualitatea: ez da nire gorputza, zure begirada da

Txikitatik diren bezala bizitzeko aukera izan duen pertsona transexualen lehen belaunaldia dugu gure artean. Haien eta gazte hauen bizitza ibilbideak asko erakutsi digu transexualitateari buruz, bereziki, onartu eta den bezala maitatzeak ekartzen dituen onuren inguruan. Testuinguru egoki bat hil ala biziko aldea egin dezake pertsona hauen bizitzan. Haien familien bizipenak entzungo ditugu errealitate hau hedatu diren gezurrak alboratuz, gertutik ezagutu ahal izateko.

| | |
|---|---|
| **Hizlaria:** | **Bea Sever**, sexologoa, Naizen elkarteko familien testigantza |
| **Datak eta ordua:** | **Abenduak 14, 2023**<br>Osteguna, 18:30 |
| **Tokia:** | Ignacio Aldekoa Kultur etxea, Vitoria-Gasteiz |
| **Norentzat:** | Herritarrentzat |
| **Hizkuntza:** | Gaztelania |
| **Antolatzaileak – kolaboratzaileak:** | Arabako Foru Aldundia |
| **Informazio + eta inskripzioak:** | ccultura@araba.eus<br>Baita ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta karteldegien bidez |

# Emakumeak ikusarazten dituzten proiektuak

## Arnas betean, Emakume zinegileak



> *“Urpekari-igerilari batzuk gara, mundu aske batean; trebeziaz igeri egiten dugu. Itsasoa abegikorra da, berezia, erakargarria, bertan murgiltzeko gogoa sortzen duena. Itsas-azalera ateratzen garenean, aldiz, inguruaren intimitate eta oreka hori galdu egiten dugu, eta mundu oso mugitua, aktiboa, malkartsua, zaila, korapilatsua, aldakorra, bizia, txinpartatsua topatzen dugu.”*

Fikzioz irudikaturiko paralelismo honek euskal emakume zinemagileak hizpide izango ditu Tentazioa Produkzioak-en eskutik estreinatuko den film-dokumentalak. Nola adierazi dituzte emakumeek zineman beren bizitza, kezkak edo indarkeriaren eta genero-estereotipoen aurrean askatasun gogoa? Nola aldatzen da ikuspuntu zinematografikoa emakume bat kameraren atzean dagoenean? Nora doa kameraren objektiboa? Azken batean, zertan aldatu da zinema euren begirada propioaren ekarpenarekin?

**Bertha Gaztelumendi Caballerok** (kazetaria eta EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco Katedran ikerlaria) eta **Rosa Zufía Sanzek** (Komunikazio Zientzietan lizentziatua) zuzendurik elkarrizketa ezberdinak eta fikzioa uztartuko dituen lana aurkez-

tuko dute. Filmak aitzindarietatik hasi eta gaur egunera arteko Euskal Herriko emakume errealizadoreen bizipenak eta lan zinematografikoak bilduko dituen istorio bat eraiki nahi du. Gutxi dira zinemagintzan aritzea lortu duten emakumeak eta normalean gutxietsiak edo ahaztuak izan dira. Hala ere, azken hamarkada hauetan hasi dira emakumeak beren arrastoa uzten zineman, eta aztarna hori da proiektu honi ekitean bilatzen duena.

Proiektu hau Arabara helduko da eta irailetik aurrera aurkezpen ezberdinak burutuko dira. Ez ezazu galdu ikusteko aukera, webgune eta sareetan informazio gehiago argitaratuko da.

## EmariApp Historiako eta gaur egungo emakumeak ezagutarazteko jolasa da




Eguneko emakumea zein den asmatzean datza jolasak, eta horretarako, 5 pista dituzu eta minutu 1 eta 30 segundo, gehienez. Ezagutzen al dituzu emakume erreferenteak? Zientzialariak, erizainak, margolariak, astronautak, matematikariak, medikuak, idazleak, zaintzaileak, kirolariak, borrokalariak...? Jolas honen bitartez, astelehenetik ostiralera, emakume erreferente baten bizitzaren inguruko pistak irakurrita nor den asmatu beharko duzu.

Deskargatu ezazu zure mugikorrean esteka honen bidez:
https://emariapp.kalaka.eus/

# Berdintasunaren aldeko Añanako elkarteen lana

Irabazi-asmorik gabeko elkarte eta antolakundeek, beren aniztasun eta esperientziarekin, hezkuntza-programak, lantegiak, jarduerak eta proiektuak antolatzen dituzte, besteak beste, genero berdintasunaren inguruko hausnarketa kritikoa sustatzen dutenak. Arabako Foru Aldundia aliatu eta bideratzaile gisa kokatzen da, eta sustatu eta babestu egiten ditu jendartearen aurrerapenari laguntzen dioten ekimenak.

LANTARTEA asociación contra la violencia de género

LAUKIA MUJERES EN ACCIÓN

GESALTZAKO TALDEA

Jarraian ageri den koadroan, Añanako Kuadrillan hainbat proiektu garatzea aurreikusten duten antolakunde batzuk topatuko dituzue:

| ENTITATEA ↓ | PROIEKTUA ↓ |
|---|---|
| **GESALTZAKO TALDEA** | *Berdintasunean dantzatuz.* Lantegiak eta antzerkiak |
| **MUJERES EN ACCIÓN LAUKIA** | *Mujeres en Acción Laukia por la igualdad.* Zahartze aktiboari buruzko lantegia |
| **LANTARTEA** | *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko sustapen- eta dinamizazio-ekintzen programa* |
| **GOIZARGI** | *Indarkeria matxistaren prebentziorako sentsibilizazio lana*. Antzerki-forumak |
| **LUMAGORRI HAT ELKARTEA** | *Ikusguneak*. LGTBI pertsonen aurkako erasoen sentsibilizazio eta salaketa-puntua |
| **KUENTAME** | *Berdintasuna kalean bertan: berdintasuna balio sozial gisa onartzen lagunduz.* Lantegiak |
| **ALDARTE** | *LESVISIBLES: Lesbianismoaren ezagutza, memoria eta ikusgarritasuna*. Dokumentala eta erakusketa |

| | |
|---|---|
| **ARASKI AES** | *Erreferenteen promozioa.* Hezkuntza zentroetara bisitak |
| **SAMURRAK ANIZTASUN SUSTAPEN TALDEA** | *Miaketak Araba 2023 – Kulturartekotasunetik berdintasun eta sexu eta generoaren aniztasunaren promozioa*. Hezkuntza zentroetan lantegiak |
| **EGINAREN EGINEZ** | *Emakume jainkotiarrak.* Aniztasun funtzionala duten emakumeen inguruko sentsibilizazio kanpaina |
| **MUNDUKO MEDIKUAK** | *Mutilazio genital femeninoaren prebentzioa*. Formakuntzak |
| **COLOMBIA EUSKADI** | *Toliman Generoan Oinarritutako Indarkerien biktima diren hainbat emakume eta seme-alabak babesteko eta artatzeko programa.* Sare sozialetan kanpaina, lantegiak, emakumeekin topaketak, erakusketa eta bideo-dokumentala |